

Irakasgaia	Gradu Amaierako Lana (GRAL)
Ikastegia	Arte Ederren Fakultatea
Sailak	Irudigintza, Pintura, Eskultura eta Arte eta Teknologia, Artearen Historia eta Musika
Titulazioa	Sorkuntza eta Diseinuko Gradua
Ikasturtea / Lauhilekoa	4. ikasturtea / 2. lauhilekoa
Kredituak	18 ECTS
Hizkuntza	Euskara / Gaztelania

1. Irakasgaiaren deskribapena eta testuingurua

Gradu Amaierako Lana 18 ECTS dituen nahitaezko irakasgai bat da, Arte Ederren Fakultateko Sorkuntza eta Diseinuko Graduko 4. ikasturteko 2. lauhilekoan ematen dena, 6 ECTS dituzten «Ikusizko Kultura Garaikidearen Testuinguruak eta Praktikak» eta «Profesionalizazioa eta Kudeaketa» nahitaezko irakasgaiekin batera. Proiektu indibidual eta autonomo bat da, teoriko-praktikoa, epaimahai baten aurrean aurkeztu beharrekoa. Lanean, tituluaren eskuratu beharreko gaitasunak akreditatu behar dira.

1.1. «Gradu Amaierako Lana» irakasgaiaren deskribapen orokorra eta graduaren beste irakasgai batzuekin duen lotura

Sorkuntza eta Diseinuko Graduaren azken irakasgai honetan lan/proiektu bat egin behar dute ikasleek, bakarka, graduaren landutako eduki, ahalmen, gaitasun eta trebetasunetan sakonduta. Hori dela-eta, lana sortzeko, planifikatzeko eta berritzeko estrategiak bilatu eta planteatu behar dituzte, modu autonomoan, sorkuntzaren eta diseinuaren alor profesionalera begira; hau da, graduaren espezialitateekin lotutako sormen industrien ingurune profesionalari begira: Diseinu Grafikoa, Ilustrazioa, eta Objektuaren Eremua: Zeramika. Gainera, sormen jarduera garatzen da jasangarritasun sozialeko printzipioetan oinarritutako etika profesional batetik.

Graduaren 1. eta 2. ikasturteek oinarritzko prestakuntza ematen dute, eta Arte Ederren Fakultatearen beste graduatan (Arteko Gradua, eta Kultura Ondarearen Kontserbazioa eta Zaharberritzeari buruzko Gradua) lantzen diren oinarri edo ezagutza komunak ematen zaizkio ikasleari. Aldiz, 3. eta 4. ikasturteek prestakuntza espezifikokoago bat ematen dute, Sorkuntzaren eta Diseinuaren arloan: gai teknikoak, kulturalak, historikoak, metodologikoak, profesionalizaziokoak, etab. Azken bi ikasturte horietako irakasgaietako gaitasunak ezinbestekoak dira ikasleek Gradu Amaierako Lana egiteko. Azken bi mailetako hautazko irakasgaiak hiru espezialitateetan egituratzen dira (Ilustrazioa, Diseinu Grafikoa, eta Objektuaren Eremua: Zeramika), eta ikasleak hautazkoak aukera ditzake espezialitate bat konfiguratzeko, edo espezialitateak kontuan hartu gabe, beste irizpide batzuk erabilita.

Aipamenak / Ibilbideak	Hautazko irakasgaiak
Diseinu grafikoa	Diseinu Grafiko Interaktiboa (60 ECTS) Ontziratzea eta Enbalajea (60 ECTS) Grafika Editoriala (60 ECTS) Ikusizko Nortasuna (60 ECTS) Testuen Ilustrazioa (60 ECTS)

Ilustrazioa	Komikia (60 ECTS) Grafika Teknologikoa (60 ECTS) Testuen Ilustrazioa (60 ECTS) PaperArt: Paper Zuntzak Sorkuntza Artistikoan. Produkzioa eta Edizioa (60 ECTS) Prototipoa eta Edizioa (60 ECTS)
Objektuaren eremua: Zeramika	Artea eta Funtzioa (60 ECTS) Zeramika eta Sorkuntza (60 ECTS) Zeramika eta Diseinua (60 ECTS) Zeramikatik (60 ECTS) Grafika Teknologikoa (60 ECTS)

Gratu Amaierako Lana proiektu indibidual eta autonomo bat da, eta lan horretan ikasleak egiaztatu egin behar du, ikasturteko gaitasunak ez ezik, graduak ere eskuratu dituela, amaiera emanik horrela graduaren prestakuntza eta ikaskuntzari.

1.2. Okupazioak eta profil profesionalak

Gaur egun, sormen industrien funtsezko lau desafio dituzte, eta desafio horietara bideratu behar dituzte sortzaileen eta diseinatzaileen profil profesionalen printzipioak, metodologiak, estrategiak eta helburuak: garapen jasagarria, eraldaketa digitala, industria lehiakortasuna eta gizarte ongizatea. Sorkuntzaren eta diseinuaren arloko jardun profesionalak balio ekonomikoaren eta sozialaren hazkuntzean lagundu behar dute, eta jardura sortzaileak bideratu behar dira erabiltzailea ardatz duen berrikuntzarako ekarpen esanguratsu gisa.

Alde horretatik, Sorkuntza eta Diseinuko Gratuak, oro har, eta titulazioaren azken irakasgaiak (Gratu Amaierako Lana), bereziki, oinarritzko gaitasunak ematen dizkiete ikasleei, beharrezko gaitasunak Diseinu Grafikoan, Ilustrazioan eta Objektuaren Eremuan lan egiteko. Irteera profesionalari dagokienez, nabarmentzekoak dira:

Especialitatea/okupazioa		Irteera profesionalak
Diseinu grafikoa	Arte zuzendaritza	Diseinu grafikoko ikasketak
Branding diseinua	Diseinu objektuala	Enpresa/korporazioen diseinu departamentuak
UX/UI diseinua	Aurre-prod. grafikoa	Komunikazio agentzien sormen departamentuak
Diseinu editoriala	Ilustrazio editoriala	Publizitate agentzien diseinu departamentuak
Packaging diseinua	Haur ilustrazioa	Museoen eta beste kultura erakunde batzuen
Publizitate diseinua	Ilustrazio zientifikoa	komunikazio/diseinu departamentuak
Ikus-entzunezkoen DG	Komikia	Arte grafikoetako aurre-produkzio departamentuak
Diseinu tipografikoa	Nobela grafikoa	Jarduera profesional autonomoa (<i>free-lance</i>)
Diseinu seinaletikoa	Zeramika	Produktuen diseinua portzelana/zeramika lantegietan
Diseinu infografikoa	...	Zeramikaria
Identitate		Diseinu grafikoa industria zehatzetan (editoriala, musikala, telebista, zinema, museoak, etab.)
Korporatiboko Diseinua		Irakaskuntza eta ikerkuntza diseinu grafikoan
Diseinu espositiboa		Irakaskuntza eta ikerkuntza ilustrazioan
		Irakaskuntza eta ikerkuntza zeramikan
		

1.3. Aldez aurreko ezagutzak

Irakasgai hau egiteko, ikasleak matrikulatuta egon behar du ikasketa plana amaitzeko behar diren irakasgai guztietan.

Gratu Amaierako Lana (GRAL) lan akademiko indibidual eta autonomo bat da, eta helburutzat du sakontzea tituluaren azken urteetan landutako diziplinetan eskuratu diren ezagutzetan, trebetasunetan eta gaitasunetan. Hori dela-eta, komeni da graduaren hiru aipamenetako edozeinetan (Diseinu Grafikoa, Ilustrazioa edo Zeramika) espezializazio ibilbide bat aukeratu duten ikasleek espezializazio horrekin koherentea izango den proiektu bat garatzea. Aipamen zehatz bat egin bada, GRALak agerian utzi behar ditu espezializazioaren prestakuntza ibilbideari espezifikoki lotutako metodologia eta proiektu gaitasunak. Era berean, aipamen berezirik egin gabe diziplina anitzeko ibilbide bat egin duten ikasleen kasuan, komenigarria litzateke proiektuak agerian uztea haien gaitasunak barne hartzen dituzten diziplina eta lanbideetan eskuratutako ezagutzak; hala nola Diseinu Grafikoa eta Ilustrazioa, Diseinu Grafikoa eta Zeramika, Ilustrazioa eta Zeramika, edo hiru diziplinak batera: Diseinu Grafikoa, Ilustrazioa eta Zeramika.

Garrantzitsua da kontuan hartzea GRALaren gaitasun espezifikoetako bat dela amaierako lana lotzea graduak xede duen arlo profesionalarekin.

2. Gaitasun espezifikoak eta zeharkakoak

Gratu Amaierako Lana da ikasleen ibilbide akademikoren azken geltokia, eta hor ikasleak erakutsi behar du eskuratu dituela Sorkuntza eta Diseinuko Graduaren gaitasun guztiak. Gaitasun horien artean daude ikasturteko gaitasunak, irakasgaiaren gaitasun espezifikoak eta zeharkako gaitasunak, modu praktiko batean erakutsi beharrekoak GRALaren ikaskuntza emaitzetan.

Ikasturteko gaitasunak (CC)	Lotutako tituluaren gaitasunak
CC01 - C4º. C1. Sorkuntzari eta diseinuari lotutako prozedurak, teknologiak, teknika eta materialak kontrolatzea, askotariko testuingurutan (Ilustrazioa, Diseinu Grafikoa, eta Objektuaren Eremua: Zeramika).	G001, G002, G003, G004, G005
CC02 - C4º. C2. Ilustrazioa, Diseinu Grafikoa, eta Objektuaren eremua: Zeramika arloetako proiektuen garapenean sakontzea.	G003, G004, G008, G009
CC03 - C4º. C3. Azalpen eta exenplifikazio teknikak erabiltzea proiektuetatik eratorritako ideia, arazo eta soluzioei buruzko informazioa transmititzeko, ahoz, bisualki nahiz idatziz.	G006
CC04 - C4º. C4. Inplikaturako sektoreen kudeaketa eta profesionalizazio sistema ezagutzea, bai eta haien funtzionamendu mekanismoak eta sisteman profesionalki sartzeko eskakizunak ere.	G009
CC05 - C4º. C5. Sormen jardueran, gizabanakoaren eta kolektibitatearen arteko harreman moduak bereiztea, arlo sozialari dagozkionak. Nork bere gain hartzea sorkuntza ekintza eta sortutakoa bera, gizarteak artista garaikideari eska diezaiokeenari dagokionez.	G003, G004, G008, G009
CC06 - C4º. C6. Sorkuntza eta berrikuntza metodologiak menderatzea, proiektu berritzaileak garatzeko, graduari lotutako diziplinetan.	G002, G009
GRALaren gaitasun espezifikoak (CE)	Lotutako ikasturteko gaitasunak (CC)
CE01 - Proiektuak aurkezteko moduak aplikatzea, graduaren eremu eta espezialitateetan.	CC03
CE02 - GRALa graduari lotutako arlo profesionalarekin lotzea.	CC02, CC04
CE03 - Eginiko lanari buruzko dosierak eta memoriak egitea.	CC01

CE04 - Sormen baliabideak proiektuen beharretara egokitzea.	CC0, CC06
CE05 – Proiektu bat egiteko behar den informazioa bilatzea, aztertzea eta txertatzea.	CC01
CE06 - Analisi autokritikoa egitea egindako proiektuaren testuinguruan.	CC05
CE07 - Egindako lana diziplina espezifikoaren arazoei dagokienez eta gizarte testuinguruan kokatzea.	CC05
CE08 - Beste lan batzuen analisian eta balorazioan parte hartzea.	CC05
CE09 - Ekarpen pertsonal eta berritzaileak egitea proiektuari.	CC02, CC06

Ikasturteko gaitasunez (CC) eta gaitasun espezifikoek (CE) gain, Gradu Amaierako Lanean funtsezkoa da autonomia eta autoerregulazioko zeharkako gaitasunetan (CT) sakontzea, bai eta konpromiso sozialeko gaitasunean ere. Zeharkako gaitasunek lantzen dituzte sormen industrien ekintza profesionalera bideratutako zeharkako edukiak eta dinamikak, jasagarritasunari loturiko helburuak planteatuta sorkuntza eta diseinuaren proiektu arloko erronka zehatz gisa.

UPV/EHuren zeharkako gaitasunak

CT01 - Autonomia eta Autoerregulazioa.

Gaitasun honen bidez, metakognizio prozesuei heltzen zaie. Pertsonak prozesu horiek betetzen dituzte beren ikasteko moduari lotuta egindako ekintzak ulertzeko, hainbat testuingurutan erabaki eraginkorrak hartzeko eta ezagutza egoera berrietara transferitzeko.

CT02 - Gizarte Konpromisoa.

Gaitasun honen bidez, ekintza enpatikoa eta arduratsua lantzen da, herri, herrialde eta mundu mailan sortutako gizarte, ingurumen eta ekonomia erronken aurrean, bai eta egungo gizartearen oinarritzko balio demokratikoen aurrean ere.

3. Ikaskuntza emaitzak

4. mailako ikaskuntza emaitzak espezifikotasunera eta profesionalizaziora bideratuta daude, graduaren memoriak adierazten duen bezala. Alde horretatik, eta garatu beharreko gaitasunei lotuta, GRAL irakasgaiko ikasleek ikaskuntza emaitza hauek lortu behar dituzte:

Gaitasunak	Ikaskuntza emaitzak (RA)
CC02, CC04 CE02, CE07	RA1. Proiektuetan Sakontzea eta Lanbide Eremuak Identifikatzea Ondo ulertzen ditu Diseinu Grafikoaren, Ilustrazioaren eta/edo Zeramikaren arloetako proiektuak, eta aukerak eta erronkak identifikatzen ditu sormen industrien eremu profesionaletan eta sektore espezifikoetan, testuinguru horietan planteatutako proiektuaren bideragarritasuna eta potentziala ebaluatuta.
CC01 CE05	RA2. Diziplinari dagozkion Prozedurak, Teknologia eta Materialak Erabiltzea Eraginkorki aplikatzen ditu Diseinu Grafikoaren, Ilustrazioaren eta/edo Zeramikaren berezko prozedurak, teknologia eta materialak, proiektua sortzeko prozesu osoan, eta behar bezala interpretatu eta erantzuten die proiektuaren behar espezifikoak eta baldintzatzaile profesionalak.
CC06 CE04, CE09	RA3. Sormen eta Berrikuntza Ideiak Sortzea Soluzio sortzaile eta berritzaileak garatzen ditu, modu aurreratu batean erabilia metodologia eta baliabide egokiak, sorkuntza eta diseinu produktuen behar espezifikoak erantzuteko, eta gai da proiektuari balio erantsia emango dioten ideia eta ikuspegi berriak proposatzeko.
CE06, CE09 CT01	RA4. Etengabeko Autoerregulazioa eta Egokitzapena Proiektuaren Garapenean Era autonomoan ekiten dio sorkuntza edo diseinu proiektu bati, eta kritikoki aztertzen ditu bere indarguneak eta ahulguneak prozesu osoan zehar. Zer hobetu daitekeen identifikatzen du proiektuaren faseetan, eta arlo horien garapena optimizatzeko ekintzak zehazten ditu, agerian utziz egokitzeko eta eboluzionatzeko gaitasuna, erronken eta ikasitakoaren arabera.

CT01	RA5. Proiektua Era Autonomoan Kudeatzea Modu autonomoan kudeatzen ditu proiektuaren helburuak betetzeko behar diren denbora, ahalgina eta baliabideak, agerian utziz planifikazio egokia, erabaki eraginkorrak hartzeko gaitasuna eta ezarritako epeak eta kalitate estandarrak betetzea ahalbidetuko duen ikuspegi antolatua.
CE03, CE05 CE08	RA6. Dossier/Lan Teoriko bat egitea Txosten edo memoria teoriko bat egiten du, ordenatua eta ondo egituratua, sorkuntza eta diseinu proiektu baten planifikazioa, garapena eta exekuzioa, ondorioak barne, dokumentatzen dituen, kudeaketaren alderdi garrantzitsuenak eta proiektuaren helburuak betetzeko behar diren prozesuaren faseen arteko koordinazioa nabarmenduta.
CC03 CE01	RA7. Ideien eta Emaizten Komunikazioa Modu eraginkor eta argian azaltzen ditu proiektuaren helburuak, baldintzatzaileak, ideiak eta emaitzak, ikusizko eta ahozko aurkezpenen bidez, agerian utziz pentsamendu kritikoa, analitikoa eta gogoetatsua, eta hiztegi egokia erabilita, ondorioak modu koherente eta sinesgarrian azaltzeko.
CC05 CT02	RA8. Gizarte Inpaktuaren eta Erantzukizunaren Analisia Proposatutako soluzioek gizartean, ingurumenean eta ekonomian duten inpaktua aztertzen eta baloratzen du, sorkuntza eta berrikuntza prozesuei lotutako erantzukizun etikoak ondo ulertzen dituela erakutsiz, gizarte jasangarriago, inklusiboago eta harmoniatuago bat lortzen lagunduko duten irtenbideak proposatuz.

4. Eduki teoriko-praktikoak

Gradu Amaierako Lanean aplikatu behar dira titulazioa definitzen duten ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak. Beraz, aintzat hartu behar ditu, orokorki, Sorkuntza eta Diseinuko Graduko ibilbideen (Diseinu Grafikoa, Ilustrazioa eta Objektuaren Eremua) alderdi profesionalak. Egiten diren analisei eta praktikei esker, ikasleek era autonomoan aplika ditzakete sorkuntzaren eta diseinuaren arloko proiektuen sormen, kudeaketa eta planifikazio alderdiak.

Ikasleek graduan eskuratutako trebetasunetan sakonduko dute, proiektu zehatz baten bidez. Lan teoriko-praktiko bat izango da, epaimahai baten aurrean aurkeztu beharrekoa, eta tituluari lotutako gaitasunak ebaluatzeko balioko du. Hurrengo taulak egin beharreko praktikak eta zereginak laburbiltzen ditu:

Zereginak	Deskribapena
1. Lan praktikoa (sorkuntza edo diseinu proiektu baten atal praktikoa egitea)	• Tituluaren arloko (Diseinu Grafikoa, Ilustrazioa edo Zeramika) sorkuntza eta diseinu proiektu bat definitu, planifikatu, kudeatu eta garatu behar da, kontuan harturik proiektuaren baldintzak eta berrikuntza sortuko duten ideia berriak planteatuz. • Proiektuak aintzat hartu behar ditu Garapen Jasangarrirako Helburuek ezarritako erronka sozialak eta jasangarritasunaren dimentsioak.
2. Lan teorikoa (prozesua dokumentatu eta hari buruzko gogoeta egingo duen dossier/memoria bat egitea, agerian utziz aztergai den arloko datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatzeko eta interpretatzeko gaitasuna, gogoeta (gai sozialei, teknologikoei, etikoei... buruzkoa) barne hartuko duten iritziak emateko, eta pentsamendu kritiko, logiko eta sortzaile bat garatzeko)	Lan praktikoa mota gorabehera, egitura hau gomendatzen da lanarentzat: • Azala: Informazio hau emango du: Gradu Amaierako Lana, Sorkuntza eta Diseinuko Gradua. Arte Ederren Fakultatea, UPV/EHU. Lanaren izenburua. Ikaslearen izen-abizenak. Tutorearen edo tutoreen izen-abizenak. Ikasturtea. UPV/EHUren logotipo ofiziala.

- **Aurkibidea**
- **Laburpena** (GRALaren laburpena, 300-500 hitz)
- **Hitz gakoak**
- **Gogoeta**, GJHei buruzkoa (200 hitz)
- **Sarrera:**
Aurrekariak eta gaiaren egoera.
Arazoaren edo aztergaiaren definizioa.
- **Helburu** orokorrak eta helburu espezifikoak, lanean bete beharrekoak
- **Aurrekariak** (erreferentziako lan profesionalak)
- **Lan plana / Metodologia:**
Proiektuaren planteamendua, «Baldintzen Plegu» gisa: proiektuaren definizioa, helburuak, informazioa/dokumentazioa, korporazioaren /instituzioaren politika, ingurunea, hartzaila/erabiltzailea, baldintzak, espezifikazioak, beharrezko baliabideak, lan plana/kronograma (planteatutako helburuak betetzeko jarraitu beharreko prozeduraren deskribapen sekuentziala, lana egiteko erabili beharreko denboran), lege alderdiak, kostuak, etab.
- **Lanaren garapena / Emaitzak / Eztabaida:**
Lan prozesua erakustea zirriborroen, prototipoen, azken emaitza iruzkinduen eta abarren bidez. Emaitzak eta haien koherentzia beste egile/profesional batzuen emaitzekin alderatzea, kontrastatzea eta eztabaidatzea (hala badagokio).
Erabakiak argudiatzea.
Lanaren mugak eta indarguneak aipatzea.
Emaitzak testuinguruan jartzea (diziplinarra/profesionala).
Gomendio eta proposamen zehatzak formulatzea, argudioak emanda, kasu bakoitzera egokituak.
- **Ondorioak:**
Ondorioak ateratzea eta hasieran planteatutako helburuekin lotzea.
- **Erreferentzia bibliografikoak, irudienak eta beste iturri batzuk:**
Erreferentzia bibliografikoak sartu behar dira formatuari eta estiloari dagokienez erabilitako arauaren arabera (APA arauen azken bertsioa).
- **Eranskinak** (hala badagokio)

Oharra: hizkuntza inklusiboa eta genero ikuspegia erabili behar dira gizakiekin erlazionatutako lanetan.

3. Aurkezpena eta defentsa

(egindako lana epaimahai baten aurrean azaltzea eta defendatzea)

- Defentsa 15 minutukoa izango da gehienez:
GRALaren **helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak**.
- Gero, epaimahaiko kideek egin ditzaketen galderei, argibide eskaerei, oharrei eta iradokizunei erantzun zezake.

Lan proposamena errazteko, ondoren aipatzen dira kontuan har litezkeen alor edo eduki **teoriko-praktikoen** adibide batzuk. Garrantzitsua da kontuan hartzea zerrenda orientatibo bat dela eta ez dela zehatz-mehatz eta hertsiki hartu behar.

Prestakuntza ibilbidea

Eduki teoriko-praktikoak (gutxi gorabeherakoak)

Diseinu grafikoa

- Identitate Bisual Korporatiboko Diseinua (identitate zeinuen diseinua, identitate euskarrien diseinu koordinatua, euskarri komertzialak, instituzionalak, promozionalak, etab.).
- Diseinu editoriala (liburu inprimatuen/digitalen diseinua, aldizkari inprimatuen/digitalen diseinua, katalogo inprimatuen/digitalen diseinua, etab.)
- *Packaging* diseinua (ontzien eta enbalajeen diseinua).
- Ingurune grafika (barruko espazioei eta hiri espazioei, garraio bideei eta

	abarrei aplikatutako grafika). • Diseinu espositiboa (erakusketa aretoetarako diseinua). • Multimedia diseinua. • Diseinu interaktiboa, UX/UI diseinua (web orrien, aplikazioen eta abarren interfaze diseinua). • Karatulen diseinua. • Kartelen diseinua (kartelismoa, muppyen diseinua, etab.). • Diseinu teknikoa edo didaktikoa (infografiak, grafika eskematikoa, gai konplexu baten datuen bisualizazio erraza, etab.). • Seinaletika diseinua (seinalizazio sistemen diseinua, pitkogramak). • ...
Ilustrazioa	• Egunkari, aldizkari eta liburuetarako ilustrazio editoriala. • Albisteen ilustrazioa egunkari eta aldizkarietan. • Haurrentzako testuen ilustrazioa. • Gazteentzako testuen ilustrazioa. • Ilustrazio zientifikoa. • Ilustrazio grafikoa. • Ilustrazio teknikoa. • Ilustrazioa biomaterialekin. • Infografiak ilustrazioa. • Publizitate ilustrazioa. • <i>Packaging</i> ilustrazioa. • Umore grafikoko ilustrazioa (tira grafikoa). • Komikia. • Narratiba bisuala edo narrazio grafikoa. • Arte kontzeptuala (<i>concept art</i>). • Marrazkia. • <i>Graphic recording</i>. • ...
Objektuaren diseinua: zeramika	• Objektu eta elementu funtzionalak diseinatzea eta egitea: lanparak, anplifikatzaileak, pertxak, etab. zeramikan. • Sukaldeko tresneria diseinatzea eta egitea: ontziak, tresnak, baxera. • Osagarrien diseinua zeramikan. • Barruko altzariak diseinatzea eta egitea material zeramikoekin. • Barruko pieza apaingarriak diseinatzea eta sortzea: estaldura zeramikoak, horma-irudiak, saretak, objektu apaingarriak. • Hiri elementuen diseinua. • ...
Ibilbide zehatzik gabe (lan multidiziplinarrak)	• Objektu zeramikoen eta haien ontzi eta enbalajeen bilduma baten diseinua (diziplinak: zeramika, <i>packaging</i> diseinua, ikusizko identitatea). • Objektu zeramikoen bilduma baten diseinua eta produktu katalogo baten diseinu editoriala (diziplinak: zeramika, diseinu grafiko editoriala). • Objektu zeramikoen sorkuntza eta haien diseinu espositiboa (diziplinak: zeramika, diseinu espositiboa). • Baxera tematiko bildumaren ilustrazioa (diziplinak: zeramika, ilustrazioa, ikusizko <i>storytelling</i>, <i>packaging</i> grafikoa). • Ilustrazio inprimatua edo proiektatua duten objektu zeramikoen erakusketa (diziplinak: zeramika artistikoa, ilustrazio kontzeptuala, diseinu espositiboa) • Zeramika piezekin eta ilustrazioekin eskuz eginiko hezkuntza mahai jokoa (diziplinak: zeramika, diseinu grafiko editoriala, ilustrazioa). • Identitate grafiko oso batekin eskuz eginiko produktu zeramikoen sail baten diseinua (diziplinak: zeramika aplikatua, ikusizko identitatea, diseinu grafikoa, ilustrazio aplikatua).

-
- Elementu zeramikoekin ilustratutako liburu-objektua (diziplinak: ilustrazioa, diseinu editoriala, zeramika esperimentalak).
 - Leku baten kartografia ilustratua, mapa, zeramika eta beste elementu grafiko batzuekin (diziplinak: ilustrazioa, diseinu grafikoak, zeramika erliebe/bolumen forma gisa).
 - Azulejo ilustratuen bilduma (diziplinak: zeramika apaingarria, ilustrazio aplikatua, patroien disenua).
 - Ilustrazioen, formen eta materialen bidez, ikusizko historia bat duen objektu zeramiko narratibo bat diseinatzea (diziplinak: produktu diseinua, zeramika, ilustrazio narratiboa).
 - Liburu ilustratu baten diseinua (diziplinak: diseinu grafikoak eta ilustrazioak).
 - Liburuen azalen diseinua eta ilustrazioa (diziplinak: diseinu grafikoak eta ilustrazioak).
 - Kartelen diseinua eta ilustrazioa (diziplinak: diseinu grafikoak eta ilustrazioak).
 - Komiki liburuen diseinua (diziplinak: diseinu grafikoak eta ilustrazioak).
 - Ontziei eta enbalajeei aplikatutako ilustrazioa (diziplinak: diseinu grafikoak eta ilustrazioak).
 - Biodiseinuak (diziplinak: diseinu grafikoak eta ilustrazioak).
 - ...
-

4.1. Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)

GRALak egin behar dira UPV/EHUren i3 hezkuntza ereduaren arabera. Hala, bultzada berezia emango zaie antolakuntzek (sektore publikoa, sektore pribatua, hirugarren sektorea eta GGKEak) sustatutako behar edo desafio errealei buruzko GRALei, arreta berezia jarritz gizarte erronketan eta jasangarritasunaren dimentsio guztietan. Halaber, bultzada emango zaie ere 2030 EHUagendarekin lerrokatutako GRALei, eta lan esparru hauen berri emango zaie titulazioetako irakasleei eta ikasleei.

GRAL guztiek gogoeta egingo dute GJHen printzipio eta balio demokratikoen argitan eginiko lanari buruz. Gogoeta horretan aztertuko da GRALak balio horiekin duen lotura maila, bai eta GJHei eratzten duten lan esparruarekin ere, eta helburu horiekiko ikuspegi kritiko bat planteatuko da. Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango du gai hauetan:

- giza eskubideak, oinarrizko eskubideak eta balio demokratikoak errespetatzea
- genero berdintasuna errespetatzea, bai eta tratatu berdintasunaren eta jaiotze leku, jatorri nazional edo etniko, erlijio, konbikzio edo iritzi, adin, desgaitasun, sexu orientazio edo identitate, genero adierazpen, sexu ezaugarri, gaixotasun, egoera sozioekonomiko edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik diskriminaziorik ezaren printzipioa ere
- pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsal eta diseinu printzipioak errespetatzea
- jasangarritasunaren eta klima aldaketaren tratamendua.

Gogoetak izango ditu gutxienez 200 hitz, atal espezifiko gisa erantsiak lan teorikoaren (dosierria/memoria) testuaren barruan. 822/2021 Errege Dekretuak aipatutako arauetaz gain, 2030 EHUagenda erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentzia esparru espezifiko gisa.

Gainera, lanaren erreferentziazko GJHak emango ditu ikasleak unibertsitateak edo ikastegiak artikulatutako sistemen bitartez.

4.2. Zuzendaria, hura esleitzea eta lanerako gaia aukeratzea

Gradu Amaierako Lana (GRAL) tutorizatuko dute graduan irakasten duen sail bateko irakasleek edo gradua ematen duen ikastegiari atxikitako irakasleek, eta pertsona batek baino gehiagok zuzendu ahal izango dute.

GRALa zuzendu ahal izango dute ere unibertsitateko doktoreek, baldin eta zuzendarikide bat badago, graduan irakasten duen sail batekoa edo gradua ematen duen ikastegiari atxikitakoa. Ikasleak GRAL osoa edo zati bat egiten badu UPV/EHUtik kanpoko erakunde batean praktiketako hitzarmen baten bidez, unibertsitatekanpoko pertsonak zuzendu ahal izango dute, eta kasu horretan ere nahitaezkoa izango da aurreko paragrafoan aipatutako baldintzak beteko dituen zuzendarikide bat izatea.

Ikastegiko Batzarrak edo hark izendatutako batzordeak, Sailekin eta Idazkaritzarekin batera, prozedura bat argitaratuko du matrikulatzeko epea amaitu aurretik, GRALaren zuzendariak eta gaiak aukeratzeari eta lanean eta defentsan erabilitako hizkuntzei buruzkoa.

5. Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia

Metodologia oinarrituko da ikaslearen lan autonomoan, eta informazioa bilatu, txostenak/ dosierak idatzi eta lanaren zati praktikoa egingo du ikasleak lan horretan. Ikasleak berak aukeratutako tutorea arduratuko da proiektua zuzentzeaz eta aholkuak emateaz, lanaren jarraipen akademikoa egiteaz, eta finkatutako ikaskuntza helburuei egoki erantzungo zaiela bermatzeaz.

Irakaskuntza metodologia bat etorriko da gaitasunen (espezifikoa eta tituluar loturikoak) akreditazio egokia lortzeko ezarritako helburuekin, eta gogoetarako, ekoizpenerako eta erabakiak hartzeko prozesu autonomoak sustatuko ditu ikasleengan.

Gradu Amaierako Lanean (GRAL), irakaskuntza erregularrik gabeko **18 kredituko** irakasgai gisa, **10 ordu erabili behar dira aurrez aurreko lanean eta zuzendariarekin eginiko tutoretza saioetan**, Graduaren Memoriaren arabera. Nolanahi ere, irakasleak ikaslearekin adostu dezake lanaren jarraipenerako programa bat, irakaskuntza gida honetan jasotako ikaskuntzak eta helburuak bermatze aldera.

Tutoretza prozesuaren jardueren koordinazioak bermatu egin beharko du ikasleak erantzun egoki eta pertsonala emango diela GRALa osatzen duten hiru atalei (lan praktikoa, lan teorikoa eta aurkezpena/defentsa), bai eta GRALaren gaitasun espezifikotan jasotako graduako gaitasunen garapenari ere. Graduaren Memoriaren arabera, 170 ordu erabili behar dira ikasgelaz kanpoko lanean eta lan autonomoan ($170 + 10 = 180$ ordu).

5.1. Tutoretza - Tenporalizazioa

Behin tutorea izendatuta, lauhilekoa hasi aurretik, irakasle/tutorea harremanetan jarriko da ikaslearekin, posta elektroniko instituzionala erabilita. Tutoretza egutegi bat adostuko dute, eta tutoreak kronograma bat proposatuko dio ikasleari. Egutegi horrek kontuan izango du 10 orduko aurrez aurreko lana, eta irakasleak jarraipen programa bat koordinatuko du ikaslearekin, ikasi beharrekoa ziurtatzeko eta irakaskuntza gida honetan ezarritako helburuak betetzeko behar den tutoretza kopurua definituta.

Kronogramak edo tutoretza programak, aurretik ikasleak eta tutoreak adostua, lauhilekoan zehar banatuko ditu saioak, kontuan izanik lehenengo tutoretza saioak bat etorri behar duela bigarren lauhilekoaren hasierarekin.

Tutorea arduratuko da ikasleak lanean eginiko urratsak gidatzeaz eta helburuak betetzen direla gainbegiratzeaz. Hala, aholkuak emango dizkio: lan praktikoa nola egin, lan teorikoaren egitura nola definitu, iturri egokiak hautatu, eta horiek modu egokian aipatu. Gainera, laguntza emango du ere lana idazteko prozesuan eta epaimahaiaren aurrean egin beharreko aurkezpenaren prestakuntzan.

Tutoretza saioak egingo dira, gutxi gorabehera, egutegi honen arabera:

Lehenengo saioa	• Irakaskuntza Gida aurkeztea. • Lanaren ezaugarriak azaltzea. • Gaia zehaztea, izena ematean esleitutako arlo tematikoaren barruan, oraindik zehaztu ez bada (irakasleak baloratu egingo du ikasleak proposatutako gaiaren egokitasuna). • Lan egutegia/programa.
Tarteko jarraipen saioak (adostuko direnak)	• Lan praktikoa egiteko aholkuak (sorkuntza edo diseinu proiektua). • Lan teorikoaren egitura definitzeko aholkuak. • Iturri eta erreferentzia egokiak aholkatzea. • Lana idazteko aholkuak.
Azken saioa	• Epaimahaiaren aurrean egin beharreko aurkezpenerako eta defentsa prestatzeko aholkuak. • <i>Tutoretzak amaitzean, horretarako ezarritako epearen barruan, tutoreak txosten batean jasoko ditu, egokitzen dituen gaiez gain, ikasleak bere burua erregulatzeko eta proiektuan doikuntzak etengabe egiteko duen gaitasunari buruzko datu garrantzitsuak, bai eta lana modu autonomoan kudeatzeko gaitasunari buruzkoak ere.</i>

6. Ebaluazio sistema

Ikasleak bere lana saio publiko batean defendatu ondoren, epaimahai batek Gradu Amaierako Lana (GRAL) ebaluatu eta kalifikatuko du. Epaimahaiko hiru kideak hautatzeko, kontuan hartuko dira hizkuntza irizpideak eta proiektuaren planteamenduarekin duten afinitatea.

Epaimahaiak GRALaren hiru zatiak ebaluatuko ditu:

GRAL zatiak/zereginak	Haztapen eskala
1. Lan praktikoa (sorkuntza edo diseinu proiektu baten atal praktikoa)	% 50-% 70
2. Lan teorikoa (lan prozesua dokumentatu eta hari buruzko gogoeta egingo duen dosierra/memoria egitea)	% 15-% 30
3. Aurkezpena eta defentsa (eginiko lana epaimahaiaren aurrean azaltzea eta defendatzea)	% 10-% 20

6.1. Kalifikazio prozesua

1. Epaimahaiak, defentsaren aurretik, jakitera emango du zer balio (%) izango duen (% 100aren gainean) GRALaren zati bakoitzak azken kalifikazioan, aurreko haztapen eskalaren arabera.

2. GRALa aurkezteko eta defendatzeko ekitaldi publikoan, ikasleak prest edukiko du erakusteko bere proiektua ikastegiak egokitutako lekuan, epaimahaiko kideek bertatik bertara ikus dezaten. Gainera, ikasleak 15 minutu izango ditu gehien jota bere proiektua ahoz defendatzeko, eta tarte horretan azalduko ditu bere lanaren helburuak, edukiak, metodologia eta lana burutu arteko prozesua. Gero, epaimahaikideen galdera, argibide eskari, iruzkin edo iradokizunei erantzungo die.

3. Epaimahaiak, lan praktikoa ikusi, aurkeztutako dosierra irakurri, defentsa publikoa aztertu eta zuzendariak eginiko txostena baloratu ondoren, kalifikazioaren inguruan eztabaidatuko du, aintzat harturik GRALaren irakaskuntza gidaren «6.2. Ebaluazio irizpide espezifikoak» ataleko ebaluazio irizpideak.

4. Kalifikazio partzial guztiak batzearen emaitza 3 kalifikazio partzial izango dira; kalifikazio partzial horietako bakoitza haztatu egingo da epaimahaiak aurretik zehaztutako ehunekoaren arabera, eta horren batuketak azken kalifikazio bat emango du, 0tik 10erako eskalan eta dezimal batez adieraziko dena. Kalifikazio horri dagokion kalifikazio kualitatiboa gehituko zaio:

0-4,9	Gutxiegi (G)
5,0-6,9	Nahiko (N)
7,0-8,9	Oso ongi (OO)
9,0-10	Bikain (B)
9,0-10	Ohorezko matrikula (OM) Ikasturteko GRAL guztiak kalifikatu ondoren, "ohorezko matrikula" eman ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei. Hala ere, ohorezko matrikulen kopurua ez da izango ikasturtean irakasgaien matrikulatutako ikasleen % 5 baino handiagoa.

5. GRALaren behin-behineko kalifikazioa argitaratu egingo da defentsa ondorengo 24 orduak igaro aurretik. Epaimahaiak akta batean jasoko ditu, azken kalifikazioaz gain, ebaluazioaren hiru ataletako bakoitzean lortutako puntuak.

Ikasleak lana gainditzeko ez badu, lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txosten bat emango dio epaimahaiak, gero ebaluazioa berriro egiteko.
Kopia bat bidaliko zaio zuzendariari.

GRALen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak egingo dira aintzat harturik unibertsitatearen ebaluazio araudia. Dena dela, kasu honetan, epaimahai bat dagoenez, epaimahaiak berak egingo du ebaluazioaren lehen berrikuspena, eta ondoren ikastegiaren Erreklamazio Batzordea arduratuko du zeregin horretaz. Azken horren erabakiaren kontra, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango da unibertsitateko errektorearen aurrean.

6.2. Ebaluazio irizpide espezifikoak

Epaimahaiak, ikaskuntza emaitzen bitartez, baloratu egingo du zer mailataraino eskuratu dituen ikasleak tituluaren gaitasun orokorrak eta GRALaren gaitasun espezifikoak.

Irakasleen ebaluazioa koordinatzeko eta ebaluazio ekitatibo bat ziurtatzeko GRALa aurkeztu duten ikasle guztien artean, eginiko lanaren ezaugarriak gorabehera, irizpide espezifiko batzuk finkatuko dira gaitasunak eta ikaskuntza emaitzak ebaluatzeko, salbuespenik gabe. GRALaren fase bakoitzean (lan praktikoa, lan teorikoa eta aurkezpena/defentsa), gaitasunak ebaluatuko dira hamar irizpide espezifikoren bidez, aintzat hartuko dutena fase bakoitzean lortutakoa:

Ebaluazio errubrikak

1. ebaluazio tresna. LAN PRAKTIKOA

% 50-% 70

(sorkuntza edo diseinu proiektu baten atal praktikoa)

Gaitasuna eta ikaskuntza emaitza		Ebaluazio tresnak	
CC02, CC04, CE02, CE07			
RA1. Proiektuetan Sakontzea eta Lanbide Eremuak Identifikatzea. Ondo ulertzen ditu Diseinu Grafikoaren, Ilustrazioaren eta/edo Zeramikaren arloetako proiektuak, eta aukerak eta erronkak identifikatzen ditu sormen industrien eremu profesionaletan eta sektore espezifikoetan, testuinguru horietan planteatutako proiektuaren bideragarritasuna eta potentziala ebaluatuta.		Sorkuntza edo diseinu proiektuaren zati praktikoari buruzko entregatutako eta aurkeztutako lan guztia: Baldintzen plegua, Gogoetak, Mapa mentalak, Zirriborroak, Maketak, Prototipoak, etab. • Posterrak • Azken emaitzak (sortutako/diseinatutako produktuak) * ...	
RA1en ebaluazio irizpide espezifikoak	Lorpen mailak		
	Bikain 10-8	Onargarria 7-5	Gutxiegi 4-0
(1) Proiektuetan sakontzea graduaren eremuen barruan	Proiektu bat garatzen du graduaren arlo espezifikoetako batean (Diseinu Grafikoa, Ilustrazioa eta Zeramika), dagokion eremu profesionala sakon ulertzen duela erakusten du, haren osagaiak, helburuak eta prozesuak zehatz-mehatz aztertzen ditu, eta teoria eta praktika argi lotzen ditu.	Proiektu bat garatzen du graduaren arlo espezifikoetako batean eta eremu profesionaletako proiektuak ondo ulertzen dituela erakusten du, alderdi batzuk ez baditu ere erabat garatu edo xehetasunez aztertu.	Graduaren eremuen barruan, proiektua azaletik ulertzen du, azterketa sakonik eta teoria eta praktikaren arteko konexio garbirik gabe. Egindako lana ez du diziplina espezifikoaren arazoei dagokienez bere testuinguruan kokatzen.
(2) Eremu profesionala eta sektore espezifikoak identifikatzea	Identifikatu eta xehetasunez aztertzen ditu sektore eta eremu profesional espezifikoak, kontuan harturik inplikaturako sektoreen kudeaketa eta profesionalizazio sistemak, haien funtzionamendu mekanismoak eta exigentziak, eta proiektua ingurune horretan kokatzen du, era zehatz eta kritikoa.	Sektore eta eremu profesional garrantzitsuak bereizten dituen arren, haren analisiari sakontasuna falta zaio, edo partziala da, eta aukera edo desafio batzuk ez ditu beren testuinguruan behar beste kokatzen.	Ez ditu behar bezala bereizten sektore edo eremu profesionalak, edo analisi mugatu bat aurkeztzen du, proiektua modu egokian kokatu gabe ingurune profesional edo sektorialean.
(3) Akabera profesionala azken emaitzetan	Diseinu Grafikoa Amaierako produktu grafikoek akabera bikaina dute, xehetasun guztiak barne. Elementu bisualen erabilera (tipografia, ikonografia, konposizioa, kolorea, etab.) oso fina eta koherentea da. Ez dago akats teknikorik ez bisualik. Ilustrazioa Ilustrazioak kontu handiz eginak daude, akabera garbi batekin, kontrol tekniko nabarmenarekin eta xehetasunetan arreta handia jarrit. Estiloa koherentea da eta pieza edo lan osoan mantentzen da. Objektuaren eremua/Zeramika Objektua ezin hobeki amaituta dago, eta xehetasun zainduak eta akabera garbiak ditu. Erabaki formalak eta materialak ondo hartu dira, eta profesionalismoa erakusten dute.	Diseinu Grafikoa Produktu grafikoak ondo amaituta daude. Akats edo inkoherentzia bisual txiki batzuk badituzte ere, ez dute eragin nabarmenik emaitzan. Elementu grafikoak ondo erabiltuta daude. Ilustrazioa Ilustrazioak ondo eginak daude, nahiz eta azken emaitzan eragin nabarmenik ez duten akats edo gabezia txikiak dituzten. Kontrol teknikoa nahikoa da, hobetu daitezkeen arren. Objektuaren Eremua/Zeramika Objektua ondo eginda dago, akabera eta xehetasun maila onargarri batekin. Akabera inperfekzio txikiak edo hobe daitezkeen gauzak baditu ere, itxura orokorra ona da.	Diseinu Grafikoa Amaierako produktu grafikoek akabera akats asko dituzte, desajuste bisualak edo koherentzia grafiko falta. Azken emaitzak agerian uzten du arreta falta xehetasunetan eta ebazpen bisual eskasa. Ilustrazioa Akabera eskasa da, ageriko akats tekniko, trazu irregular eta inkoherentzia estilistikoekin. Exekuzioak agerian uzten du ez direla tresnak menderatzen edo ez dela arreta xehetasunetan jartzen. Objektuaren Eremua/Zeramika Akabera pobrea da, gutxi zaindutako xehetasun, exekuzio akats ageriko eta objektuaren aurkezpenean eragin negatiboa duen ebazpen formalarekin. Zehaztasun edo planifikazio falta.

Gaitasuna eta Ikaskuntza Emaizta		Ebaluazio tresnak	
CC01, CE05		Sorkuntza edo diseinu proiektuaren zati praktikoari buruzko entregatutako eta aurkeztutako lan guztia: Baldintzen plegua, Gogoetak, Mapa mentalak, Zirriborroak, Maketak, Prototipoak, etab. • Posterrak • Azken emaitzak (sortutako/diseinatutako produktuak) * ...	
RA2. Diziplinari dagozkion Prozedurak, Teknologiak eta Materialak Erabiltzea			
Eraginkorki aplikatzen ditu Diseinu Grafikoaren, Ilustrazioaren eta/edo Zeramikaren berezko prozedurak, teknologiak eta materialak, proiektua sortzeko prozesu osoan, eta behar bezala interpretatu eta erantzuten die proiektuaren behar espezifikoak eta baldintzatzaile profesionalak.			
RA2en ebaluazio irizpide espezifikoak	Lorpen mailak		
	Bikain 10-8	Onargarria 7-5	Gutxiegi 4-0
(4) Prozedurak, teknologiak eta materialak ondo aplikatzea	Prozedurak, teknologiak eta materialak modu aditu eta eraginkorrean erabiltzen ditu, eta agerian uzten ditu ezagutza sakona eta integrazio ahalmena sorkuntza prozesu osoan.	Prozedurak, teknologiak eta materialak modu egokian erabiltzen ditu, nahiz eta erabaki batzuk hobetu daitezkeen, edo ez diren zehazki exekutatu.	Ez ditu behar bezala erabiltzen diziplinaren prozedurak, teknologiak eta materialak, eta akats nabarmenak egiten ditu, edo ez ditu baliabideak ondo egokitzen.
(5) Proiektuaren behar eta baldintzatzaileei erantzutea	Bikain erantzuten die proiektuaren beharrei, prozedurak eta baliabideak egokituta, Diseinu Grafikoaren, Ilustrazioaren eta/edo Zeramikaren baldintzatzaile espezifiko eta profesionalak erantzuteko.	Modu egokian erantzuten die proiektuaren beharrei, nahiz eta erabaki batzuk baldintzatzaileekin guztiz bat ez badatoz ere, edo ez diren guztiz egokitu.	Ez die behar bezala erantzuten proiektuaren beharrei, eta alde batera uzten ditu edo ez ditu ondo interpretatzen baldintzatzaile profesionalak eta zehaztapenak.

Gaitasuna eta Ikaskuntza Emaizta		Ebaluazio tresnak	
CC06, CE04, CE09 RA3. Sormen eta Berrikuntza Ideiak Sortzea Soluzio sortzaile eta berritzaileak garatzen ditu, modu aurreratu batean erabilia metodologia eta baliabide egokiak, sorkuntza eta diseinu produktuen behar espezifikoak erantzuteko, eta gai da proiektuari balio erantsia emango dioten ideia eta ikuspegi berriak proposatzeko.		Sorkuntza edo diseinu proiektuaren zati praktikoari buruzko entregatutako eta aurkeztutako lan guztia: Baldintzen plegua, Gogoetak, Mapa mentalak, Zirriborroak, Maketak, Prototipoak, etc. • Posterrak • Azken emaitzak (sortutako/diseinatutako produktuak) • ...	
RA3en ebaluazio irizpide espezifikoak	Lorpen mailak		
	Bikain 10-8	Onargarria 7-5	Gutxiegi 4-0
(6) Idea sortzaileak sortzea (sormena)	Soluzio konbentzionalak desafiatzen dituzten ideia guztiz originalak proposatzen ditu, eta era esanguratsu batean erabiltzen ditu sormen eta berrikuntza metodologiak, agerian utziz era sortzaile batean pentsatzeko aparteko ahalmena.	Idea originalak proposatzen baditu ere, egokiak proiekturako, nahiko konbentzionalak dira, edo ez ausartegiak, proiektuaren potentzialarekin konparatuz gero.	Ez da sorkuntza metodologiarik modu eraginkorrean erabili. Proposatutako ideiak ez dira oso originalak, errepikakorrek dira edo ez dute irudimenik, eta ez diote elementu berriak eransten proiektuari.
7 Soluzioen aplikazio efektiboa proiektuari (berrikuntza)	Aurkeztutako soluzioak oso berritzaileak dira. Ideiak era efektibo eta praktikoa batean aplikatzen ditu, emaitza nabarmenak lortuta, bai eta inpaktu esanguratsu bat ere proiektuaren garapenean eta kalitatean.	Ideiak era egokian aplikatzen ditu, baina soluzio batzuk ez dira guztiz eraginkorrak edo doitu egin behar dira guztiz inplementatzeko.	Ideiak ez dira eraginkorki aplikatzen proiektuan, eta soluzio batzuk desagokiak edo inplementatzen zailak dira.

Gaitasuna eta Ikaskuntza Emaitza		Ebaluazio tresnak	
CE06, CE09, CT01		• Tutorearen txostena • Sorkuntza edo diseinu proiektuaren zati praktikoari buruzko entregatutako eta aurkeztutako lan guztia • ...	
RA4. Etengabeko Autoerregulazioa eta Egokitzapena Proiektuaren Garapenean			
Era autonomoan ekiten dio sorkuntza edo diseinu proiektu bati, eta kritikoki aztertzen ditu bere indarguneak eta ahulguneak prozesu osoan zehar. Zer hobetu daitekeen identifikatzen du proiektuaren faseetan, eta arlo horien garapena optimizatzeko ekintzak zehazten ditu, agerian utziz egokitzeko eta eboluzionatzeko gaitasuna, gaingidutako erronken eta ikasitakoaren arabera.			
RA4en ebaluazio irizpide espezifikoak	Lorpen mailak		
	Bikain 10-8	Onargarria 7-5	Gutxiegi 4-0
(8) Proiektuaren etengabeko autoerregulazioa eta egokitzapena	Autoerregulazio ahalmen handia du, sakon ezagutzen ditu ikasteko bere estrategiak, erabaki eraginkorrak hartzen ditu, ezagutza testuinguru berrietara transferitzeko gaitasun handia du eta gogoeta egiten du etengabe prozesuari buruz. Autogogoeta sakon eta etengabekoa egiten du proiektu osoan zehar, zehatz identifikatzen ditu indarguneak eta ahulguneak, gai da bere lana modu eraginkorrean eta autonomoan egokitzeko eta doitzeko, eta bilakaera argi eta positibo bat erakusten du bere zereginean.	Autoerregulazio maila egoki bat du, nahiz eta baduen zer hobetu gogoetan, egokitzapenean edo ezagutzaren transferentzian. Autonomia eta erabakiak hartzea funtzionalak dira, baina ez beti eraginkorrak. Autogogoeta egokia egiten badu ere, muga batzuk ditu hobetzeko arloak identifikatzean edo desafioetara egokitzean. Laguntza pitin bat behar du bere ikuspegia doitzeko eta lana optimizatzeko.	Gabezia handiak ditu bere ikaskuntzaren autoerregulazioan, gogoeta gutxi egiten du, zailtasunak ditu erabaki eraginkorrak hartzeko edo ezagutza transferitzeko, eta autonomia eta egokitzeko ahalmena falta zaizkio. Zailtasunak ditu modu egokian bere zereginari buruz gogoeta egiteko edo hobetzeko arloak identifikatzeko edo doitzeko, eta mugatu egiten du horrek proiektuan zehar egokitzeko eta eboluzionatzeko gaitasuna.

Gaitasuna eta Ikaskuntza Emaita		Ebaluazio tresnak	
CT01		• Tutorearen txostena • Baldintzen plegua • Planifikazioa • Kronograma • Sorkuntza edo diseinu proiektuaren zati praktikoari buruzko entregatutako eta aurkeztutako lan guztia • ...	
RA5. Proiektua Era Autonomoan Kudeatzea			
Modu autonomoan kudeatzen ditu proiektuaren helburuak betetzeko behar diren denbora, ahalegina eta baliabideak, agerian utziz planifikazio egokia, erabaki eraginkorrak hartzeko gaitasuna eta ezarritako epeak eta kalitate estandarrak betetzea ahalbidetuko duen ikuspegi antolatua.			
RA5en ebaluazio irizpide espezifikoak	Lorpen mailak		
	Bikain 10-8	Onargarria 7-5	Gutxiegi 4-0
(9) Autonomia	Modu eredugarri batean kudeatzen du proiektua, era autonomoan eta eraginkorrean erabilia denbora, baliabideak eta kalitatea, planifikazio zehatzarekin eta erabaki onak hartuta.	Ondo kudeatzen du proiektua, hobetu egin badaitezke ere planifikazioaren alderdi batzuk edo zenbait erabaki. Norbaitek gainbegira dezan behar du, edo egokitzapen txiki batzuk.	Gabezia nabarmenak ditu proiektua era autonomoan kudeatzean, planifikazio faltarekin, zailtasunak ditu erabakiak hartzean, eta arazoak, epeak edo kalitate estandarrak betetzean.

Gaitasuna eta Ikaskuntza Emaizta

Ebaluazio tresnak

CC05, CT02

RA8. Gizarte Inpaktuaren eta Erantzukizunaren analisia

Proposatutako soluzioek gizartean, ingurumenean eta ekonomian duten inpaktua aztertzen eta baloratzen du, sorkuntza eta berrikuntza prozesuei lotutako erantzukizun etikoak ondo ulertzen dituela erakutsiz, gizarte jasangarriago, inklusiboago eta harmoniatsuago bat lortzen lagunduko duten irtenbideak proposatuz.

- Sorkuntza edo diseinu proiektuaren zati praktikoa iri buruzko entregatutako eta aurkeztutako lan guztia
- Dosierrean aipatutako proiektuari buruzko gogoetak eta analisia
- ...

RA8en ebaluazio irizpide espezifikoak

Lorpen mailak

Bikain 10-8

Onargarria 7-5

Gutxiegi 4-0

**(10)
Inpaktua ulertzea
eta soluzio jasangarriak,
inklusiiboak eta
harmoniatsuak
proposatzea**

Proposatutako soluzioen gizarte, ingurumen eta ekonomia inpaktua sakon eta xehe ulertzen duela erakusten du. Ikuspegi ugari aztertzen ditu, era kritiko eta enpatiko batean. Enpatia handia erakusten du, kontuan hartuz inplikaturako aldean (komunitateak, etorkizuneko belaunaldiak, etab.) interesak eta ikuspegiak inpaktuak aztertzean. Soluzio oso jasangarriak proposatzen ditu, oso mesedegarriak gizarte inklusiboago, ekitatiboago eta ingurumenarekiko errespetutsuago bat lortzeko.

Modu egokian ulertzen ditu gizarte, ingurumen eta ekonomia inpaktuak, arlo batzuk azaletik edo modu orokorrean ulertzen baditu ere. Oinarrizko enpatia maila du eta kontuan hartzen ditu eragile garrantzitsu batzuk, baina ez du sakontzen talde guztien gaineko inpaktuan. Soluzio egokiak proposatzen baditu ere, hobetu litekeen ikuspegi mugatu bat du jasangarritasunean edo inklusioan.

Ez du sakon eta xehe ulertzen proposatutako soluzioen gizarte, ingurumen eta ekonomia inpaktua. Ez du enpatiarik inpaktuen analisian, eta alde batera utzi edo minimizatu egiten du inpaktuaren eraginpean dauden taldeen ikuspegia. Proposatutako soluzioak ez dira ez jasangarriak ez inklusiboak, eta ez diote ekarpen nabarmenik egiten gizarteari edo ingurumenari.

2. ebaluazio tresna. LAN TEORIKOA / DOSIERRA

% 15 - % 30

(lan prozesua dokumentatu eta hari buruzko gogoeta egingo duen dosierra/memoria egitea)

Gaitasuna eta Ikaskuntza Emaizta

Ebaluazio tresnak

CE03, CE05, CE08

• Dossier/memoria idatzia

RA6. Dossier/Lan Teoriko bat egitea

Txosten edo memoria teoriko bat egiten du, ordenatua eta ondo egituratua, sorkuntza eta diseinu proiektu baten planifikazioa, garapena eta exekuzioa, ondorioak barne, dokumentatzen dituen, kudeaketaren alderdi garrantzitsuenak eta proiektuaren helburuak betetzeko behar diren prozesuaren faseen arteko koordinazioa nabarmenduta.

RA6en ebaluazio irizpide espezifikoak	Lorpen mailak		
	Bikain 10-8	Onargarria 7-5	Gutxiegia 4-0
(1) Dosierraren egitura eta antolakuntza	Dosierra oso ondo ordenatuta eta egituratuta dago, modu argi eta logiko batean antolatuta, eta ondo ulertzen da horri esker. Atalak ondo definituta daude, eta modu koherente batean garatuta.	Egitura argia da, nahiz eta atal batzuetan mesedegarria izan litekeen antolakuntza hobeago edo garapen handiago bat. Oro har, dosierra ulertzen da.	Dosierraren egitura nahasgarria da edo desantolatuta dago, eta edukia ulertzea zailtzen du horrek.
(2) Entregatutako dokumentazioaren kalitatea eta koherentzia	Proiektu bat egiteko behar den informazioa bilatu, aztertu eta txertatzen du. Sorkuntza eta diseinu proiektua planifikatzeari, garatzeari eta gauzatzeari buruzko dokumentazioa, ondorioak barne (dokumentazio grafikoa, mapa mentalak, eskemak, zirriborroak, maketak, prototipoak, azken emaitzak, etab), bete-betekoa, oso xehea eta kalitate handikoa da. Argi justifikatzen dira proiektuan hartutako erabaki guztiak, eta oso zehatz ebaluatzen dira emaitzak. Jarraipena eta kalitatea zehaztasun handiz dokumentatuta daude, eta proiektuak ikuspegi zorrotz eta profesionala duela adierazten du horrek.	Dokumentazioak proiektuaren fase nagusiak barne hartzen ditu, baina xehetasun edo sakontasun maila txikiago batekin, maila bikainarekin konparatuz gero. Dokumentazioaren kalitate grafikoa onargarria da. Emaizten ebaluazioa eta erabakien justifikazioak balekoak badira ere, zehatzagoak izan litezke. Kalitate jarraipenaren eta kontrolaren azalpena egiten da, baina hobetu liteke.	Dokumentazioa osagabea da, edo funtsezko xehetasunak falta zaizkio. Planifikazioa, garapena eta exekuzioa ez dira behar bezala jaso dokumentazioan. Ondorioak azalekoak dira eta ez dute justifikazio sendorik. Proiektuaren jarraipena eta kalitate kontrolak ez daude ondo dokumentatuta, eta proiektuaren ebaluazioa mugatzen du horrek.
(3) Lan profesionalen analisia eta balorazio kritikoa (proiektuaren erreferenteak)	Proiektu profesionalen dokumentazioa aurkezten du, zehatz-mehatz identifikatuta erreferente gisa erabil daitezkeen lan profesionalak, eta xehetasunez azaltzen ditu proiektuaren testuinguruan duten garrantzia eta praktika profesionalean duten balioa. Proiektu profesionalen analisia sakona eta xehea da, eta alderdi gako guztiak barne hartzen ditu: hala nola erabilitako metodologiak, sorkuntza ikuspegiak, emaitzak eta ikasitakoa.	Lan profesional esanguratsu batzuk identifikatzen ditu, baina proiektuarekiko lotura edo testuingurua ez da behar bezain argi edo sakon garatzen. Proiektuen analisia egokia da, baina prozesuaren alderdi garrantzitsu batzuk edo emaitzak ez dira guztiz aztertzen, edo behar bezain sakon.	Ez du aurkezten proiektu profesionalen dokumentaziorik edo analisisirik, edo ez ditu behar bezala identifikatzen lan profesional garrantzitsuak, edo ez du haien balioa justifikatzen erreferente gisa proiektuaren testuinguruan. Proiektuen analisia azalekoa da eta ez dago azterketa kritikorik edo xehetasun garrantzitsuen azterketarik, lanaren alderdi gakoiei dagokienez.
(4) Proiektuaren faseen planifikazio eta koordinazio prozesuaren garapena	Proiektuaren planifikazioa eta exekuzioa xehetasunez azaltzen dira, ondo definitutako baldintza batzuetatik abiatuta argi eta garbi, analisi sakon batekin eta hartutako erabakiak justifikatuta. Gogoeta	Planifikazioa eta exekuzioa ondo azalduta daude, xehetasun garrantzitsu batzuk falta badira ere, edo azaletik aipatzen diren. Analisia eta justifikazioa ez dira guztiz argiak.	Planifikazio eta exekuzio prozesuaren azalpena lausoa edo osagabea da. Baldintzak eta eskakizunak ez dira oso argiak.

	egiten da prozesuaren fase bakoitzaren inguruan, eta agerian jartzen dira esperientzian oinarritutako hobekuntzak. Koordinazio argi eta eraginkorra dago proiektuaren faseen artean, xehetasunez aztertuta fase bakoitzak helburuei zer ekarpen egiten dien. Modu egokian kudeatzen dira denborak eta baliabideak, agerian jarritz proiektuaren ikuspegi integrala.	Faseen arteko koordinazioa egokia da, nahiz eta baliabideen edo denboren kudeaketaren alderdi batzuei ez zaien behar bezain sakon heltzen.	Xehetasun garrantzitsuak falta dira eta proiektuaren garapena ez da argi aztertzen. Ez dago koordinazio argirik proiektuaren faseen artean, edo baliabideen eta denboren kudeaketaren analisia oso mugatua da, edo ez dago analisirik.
(5) Proiektuaren kudeaketaren alderdi garrantzitsuenen analisia	Dosierrak sakon eta xehe aztertzen ditu proiektuaren kudeaketaren alderdi garrantzitsuenak; hala nola erabakiak hartzea, arazoak konpontzea eta emaitzak ebaluatzea. Ikasitakoari buruzko gogoeta argiak egiten dira.	Analisi egoki bat egiten da, baina gai batzuk gutxi garatuta daude edo ez dute behar besteko sakontasun kritikorik. Analisia orokorra da.	Alderdi garrantzitsuen analisia azalekoa da edo ez dago analisirik, proiektuaren kudeaketari buruzko gogoeta kritikorik edo xeherik gabe.
(6) Amaierako ondorioak eta gogoetak	Ondorioak argiak dira, ondo argudiatuta daude eta helburuei eta sorkuntza eta diseinu prozesuari buruzko gogoeta kritiko eta sakona dute. Ikaskuntzak eta hobetzeko proposamenak nabarmentzen dira.	Ondorioak egokiak dira, baina sakontasun handiagoz egin litezke ikasitakoari buruzko gogoeta eta analisia.	Ondorioak lausoak dira edo ez dago ondoriorik, eta ez dago ere proiektuari buruzko gogoeta esanguratsurik.
(7) Hizkuntza, hiztegia eta ortografia	Bikain menderatzen du hizkuntza, eta hiztegi zehatz eta egokia erabiltzen du, sintaxi argi eta egoki batekin. Idazketa koherentea da, akats ortografiko edo gramatikalik gabea, eta egitura gramatikal askotarikoak eta konplexuak erabiltzen ditu modu eraginkor batean.	Kasu gehienetan, hizkuntza egokia erabiltzen du, zehaztugabetasun gutxiarekin edo akats txikiekin. Idazketa argia da, nahiz eta konplexutasun edo argitasun pixka bat falta zaion zati batzuetan, eta akats ortografiko eta gramatikal txikiak ditu.	Idazketak akats esanguratsuak ditu hiztegian, sintaxian edo ortografian, eta mezua ulertzea zailtzen du horrek. Testuinguruarekiko egokitzapen faltak edo egitura sinpleen errepikapenak eragina dute testuaren argitasunean eta kalitatean.
(8) Erabilitako iturrien egokitasuna eta aipu bibliografikoen zehaztasuna	Aipatutako iturriak kalitate handikoak dira, eta esanguratsuak eta egokiak tratatutako gaiarentzat. Dokumentazio lan zorrotza egin dela erakusten du horrek. Aipu bibliografikoek ezin hobeki betetzen dituzte APA arauak, zehaztasun eta koherentzia handiz, lan osoan. Aipu bibliografikoek informazio garrantzitsu guztia (egilea, izenburua, urtea, etab.) barne hartzen dute, zehatz, hutsik gabe.	Iturriak egokiak dira, gerta badaiteke ere batzuk guztiz esanguratsuak ez izatea edo eguneratuta ez egotea. Aipu bibliografiko gehienek formatu egokia badute ere, akats txiki batzuk daude, koherentziari edo formatuari dagokionez. Aipuek informazio garrantzitsuenak jasotzen dute, xehetasun txiki batzuk falta badaitezke ere (adibidez, urtea edo izen osoa).	Erabilitako iturriak ez dira egokiak edo garrantzitsuak landutako gaiarentzat, eta lanaren balioa kaltetzen du horrek. Aipu bibliografikoen formatua ez da egokia edo koherentzia falta zaie, akatsekin estiloan edo emandako informazioan. Aipuak osagabeak dira edo akats nabarmenak dituzte; hala nola funtsezko informazioa ez ematea (egilea, data, izenburua, etab.).
(9) Irudien eta iturri bisualen erreferentziak	Irudi eta elementu bisual guztiak ondo erreferentziatuta daude iturriekin, era zehatz eta egokian, behar den estiloarekin.	Irudien erreferentziak ondo daude, baina iturri bisualen xehetasun batzuk zehaztugabeak edo osagabeak izan daitezke.	Irudien erreferentziak ez dira egokiak, edo ez dute iturria argi identifikatzeko behar den informaziorik.
(10) Dosier/memoriaren aurkezpenaren kalitate bisuala	Dosierrak maketazio argia du, erretikula egoki, koherente eta bisualki erakargarri batekin. Testuak ezin hobeki hierarkizatuta daude, irudien, eskemen eta baliabide bisualen integrazio bikain batekin. Muiltzoak profesionaltasun maila handi bat du, eta arreta handia jartzen du xehetasunetan.	Maketazioa funtzionala eta egokia da, nahiz eta gabezia txiki batzuk izan ditzakeen orrialdeen koordinazioan edo elementu bisualen integrazioan. Testuak ondo egituratuta eta zainduta daude, hobetu egin badaiteke ere kohesio bisualari edo azken berrikuspenari dagokionez.	Dosierraren maketazioa ez da oso argia edo ez da behar bezala zaindu. Akats nabarmenak daude konposizioan, testuak ez daude ondo hierarkizatuta edo akatsak dituzte, eta irudiak edo eskemak ez daude ondo bateratuta edo antolatuta. Azken emaitzak gutxi zaindutako aurkezpen bisual bat du.

(6) Argitasuna ideiak eta emaitzak ahoz transmititzean	Ideiak eta emaitzak transmititzen dira modu argi, xehe eta ulergarrian, mezua indartzen duten adibideak eta bisualizazioak erabiltza.	Ideiak eta emaitzak argi transmititzen dira, baina puntu batzuei zehaztasuna falta zaie edo adibide batzuk argigarriagoak izan litezke.	Ideiak eta emaitzak ez dira argi transmititzen, eta adibideen edo bisualizazioen faltak mezua ulertzea zailtzen du.
(7) Erabilitako hizkuntza eta hiztegia	Hiztegi egoki eta zehatza erabiltzen du, diziplinan erabiltzen dena, testuingururako eta aztergai den eremurako egokiak diren tonu eta modu batekin, eta mesede egiten dio horrek aurkezpenaren eraginkortasunari.	Erabilitako hiztegia egokia da, baina zehaztugabetasun batzuk daude, edo erabilitako hiztegia ez da behar bezain zabala. Ahozko komunikazioa ulergarria da, baina ez oso eraginkorra.	Hiztegia desegokia edo zehaztugabea da, eta kalte egiten die horrek komunikazioaren argitasunari eta eraginkortasunari.
(8) Gogoeta egitea erabakiak hartzean sorkuntza prozesuan	Gogoeta sakona egiten du sorkuntza prozesuan hartutako erabakiei buruz, identifikatu eta argumentatu egiten ditu ondo eginikoak nahiz hobetu beharrekoak, eta hobetzeko alternatiba edo egokitzapen zehatzak proposatzen ditu. Akatsetatik ikasten du eta jarrera proaktibo eta eraikitzaile batekin egiten die aurre zailtasunei.	Gogoeta egiten du hartutako erabakiei buruz, baina gogoeta hori nahiko azalekoa da edo ez du hobetzeko alternatibarik proposatzen. Gai da neurri batean arazoak identifikatzeko eta irtenbideak ebaluatzeko, gogoeta ez oso sakon baten bidez bada ere. Jarrera positibo batekin egiten die aurre zailtasunei, baina batzuetan erabakimena falta zaio, edo eraginkorki egokitzeko gaitasuna.	Apenas egiten duen gogoeta hartutako erabakiei buruz, eta ez da proposatzen hobetzeko alternatibarik edo egokitzapenik. Zailtasunak ditu arazoak identifikatzeko edo modu kritikoan ebaluatzeko. Hartutako erabakiei buruzko gogoeta oso txikia edo lausoa da, eta ez dago ikuspegi eraikitzaile edo proaktiborik akatsen aurrean.
(9) Emaizten analisia	Pentsamendu kritiko, gogoetatsu eta analitiko sakona du, emaitzak argi aztertzen eta ebaluatzen ditu, indarguneak eta ahulguneak nabarmenduta adibide argi eta oinarrituen bidez. Gaitasun handia du proiektuaren emaitzak kritikoki aztertzeko eta haiei buruzko gogoeta egiteko. Etorkizuneko proiektuetarako hobekuntza zehatzak proposatzen ditu.	Emaizten analisi arrazoizko bat egiten du, baina gogoeta eta ebaluazio ez oso sakon batekin. Soluzioak modu egokian ebaluatzen ditu, baina soluzioen alderdi batzuk ez ditu guztiz analizatzen edo modu orokorrean aipatzen ditu.	Apenas duen gaitasunik emaitzak kritikoki aztertzeko eta haiei buruzko gogoeta egiteko. Soluzioen ebaluazioa lausoa da, edo ez du behar besteko analisi kritikorik. Ez du gogoeta kritikorik egiten proposatutako soluzioen inguruan.
(10) Segurtasuna eta konfiantza ondorioak azaltzean eta defentsan	Modu koherente eta sinesgarrian azaltzen ditu ondorioak, eta argi, seguru eta era koherentean defendatzen eta oinarritzen ditu. Adibideak eta ebidentzia sendoak erabiltzen ditu bere jarrera defendatzeko, eta gai da modu eraginkorrean konbentzitzeko. Gainera, modu egoki eta sinesgarrian planteatzen ditu kontrako argudioak eta kritikak, gaia goitik behera menderatzen duen seinale.	Modu argi eta koherentean aurkezten ditu ondorioak, nahiz eta une batzuetan argudio sakonagoak eta konfiantza handiagokoak erabili litezkeen. Konbentzitzeko nolabaiteko gaitasuna du, eta ondo erantzuten die kontrako argudioei, modu guztiz sinesgarri batean ez bada ere.	Ez da gai bere ondorioak defendatzeko modu argian eta koherentean. Segurtasun edo konfiantza faltak kalte egiten dio argudioaren eraginkortasunari. Gainera, ez da gai modu egokian erantzuteko kontrako argudioei edo kritikei.

7. Alderdi etikoak

Plagioa

Alde batetik, epaimahaiaren zeregina izango da ikustea ea lanean erabilitako kanpo iturriak ondo erreferentziatuta dauden, eta kontuan izango du ere GRALA beste lan baten plagioa (partziala edo erabatekoa) izan daitekeela adieraz dezakeen zantzurik badagoen. Plagiatzea jokabide larri bat da alor akademikoan, eta beste pertsona baten ideiak, lanak edo proiektuak erabiltzean edo kopiatzean datza, iturri originala aipatu gabe, norberarenak bailiran.

UPV/EHUK plagioari eta onestasun akademikoari buruzko araudi bat du:

<https://www.ehu.eus/es/web/biblioteca/plagioa-eta-onestasun-akademikoa>

AA modu bidegabean erabiltzea

Bestetik, azken urteetan, gero eta gehiago erabiltzen ari dira Adimen Artifizialaren teknologiak proiektuen dokumentazio eta idazketa lanetan, bai eta proiektuen etapa praktikoa ere, eta nahitaezkoa da horiek erabiltzea eta erreferentziatzea, kanpoko beste edozein iturriarekin egingo litzatekeen bezala, modu etiko, arduratsu eta errespetutsu batean.

GRALaren helburua da agerian jartzea ikasleak eskuratu egin dituela graduaren gaitasunak. Beraz, erakutsi egin behar du proiektua egin duela bere kabuz eta modu zintzoan, lana originala dela, eta egoki erreferentziatutako iturri zehatzetan oinarritzen dela.

Susmorik izanez gero AA gehiegi eta modu bidegabean erabili dela, epaimahaiak ziurtatu egingo du dossierrean idatzitakoaren, dokumentazioaren edo lan praktikoa benetakotasuna, plagioa detektatzeko tresnen edo AA egiaztargailuen bitartez. Epaimahaiak lanaren alderdi etikoa baloratuko du, inplikazio posibleak zehazte aldera. Ez-gainditutzat jo ahal izango du plagioa edo AAren erabilera bidegabea detektatu den atala (teorikoa, praktikoa edo biak).

8. Ikaskuntza baliabideak

Gradu Amaierako Lana	Batolomé, A. eta Ferrer, V. (2016). El trabajo de fin de grado: guía para estudiantes, docentes y agentes colaboradores. Visor https://ehu.on.worldcat.org/oclc/912308123 Cunha, I. eta Cabré, M.T. (2016). El trabajo de fin de grado y de máster: redacción, defensa y publicación. UOC https://ehu.on.worldcat.org/oclc/978532817
Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)	ONU: https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/ 2030 EHUagenda: http://ehu.eus/es/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030
Informazioa bilatzeko baliabideak	UPV/EHUn Bibliotekako katalogoa: https://ehu.on.worldcat.org/discovery Gradu Amaierako Lanerako materialak EHUBiblioteka: https://www.ehu.eus/es/web/biblioteca/grla-egiteko-materialak Informazio bibliografikoko baliabideak EHUBiblioteka: https://www.ehu.eus/documents/d/biblioteca/trip-tfg-bellasartes-bba-2024
Lan teorikoa idazten laguntzeko baliabideak	RAE hiztegia: https://dle.rae.es/ Elhuyar Hiztegia: https://www.euskadi.eus/elhuyar-hiztegia/ Sinonimoen hiztegia: https://www.wordreference.com/sinonimos/ Zalantza gramatikalen, ortografikoen... bilatzailea: https://www.fundeu.es/
Bibliografia aipuetarako eta irudiak eta iturri bisualak erreferentziatzeko baliabideak	APA arauak: https://normas-apa.org/wp-content/uploads/Guia-Normas-APA-7ma-edicion.pdf / https://www.ehu.eus/documents/11525391/0/APA-7-es.pdf Iturri akademikoak aipatu eta erreferentziatzeko gida: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/55434/GU%C3%8DA%20CITAR_REFERENCIAR%20FUENTES%20ACADEMICAS_BHF.pdf?sequence=1 Irudiak, argazkiak eta grafikoak erreferentziatzeko APA arauak: https://normas-apa.org/estructura/figuras/ https://normas-apa.org/citas/derechos-de-autor-de-imagenes-figuras-y-tablas/

9. Jabetza intelektual

GRALa Jabetza Intelektualaren Legeak babestutako lan bat da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titulartasuna lanaren egileari dagokio, salbu eta besterik adierazten bada ikasle bakoitzak onartu duen GRALa esleitzeko dokumentuan, legerian ezarritako baldintza eta terminoetan.